

B

BARREN

TOKIKOM

Tecnifuelle, zilarrezko mailan





David Fernandez (elgoibartarra, 35 urte) MUko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko (HUHEZI) Lehen Hezkuntzako ikaslea da, Heziketa Fisikoa ibilbidekoa, hain zuzen ere, eta 4. mailan dago. Elkarrizketa honetan MONDRAGON UNIBERTSITATEAri buruz ete bere hezkuntza metodologiari buruz duen iritzia azalduko digu.

“HUHEZIk izaera kritikoa eta jakin-mina transmititu dit”



• Zergatik aukeratu zenuen Irakasle Ikasketak gradua?

Lehenbiziko aukeran ez nuen asmatu, goi mailako heziketa ziklo bat egin eta segituan lanean hasi nintzen kooperatiban bazkide bezala. Baina, 9 urtez lan egin ondoren, utzi nuen irakasle ikasketak hasteko, nire bokazioa formazioan zegoela ikusi bainuen. Arrazoi nagusia da irakasleak komunitatean eta gizartean duen papera asko interesatzen zaidala, izan ere, gizartea eraldatzeko eta hobetzeko giltza duten haurrak hezteko aukera izateak garrantzia handia eta erresposabilitate handia duela uste dut, eta alderdi horrek ere, pisu asko izan zuen nire aukeraketan.

• Eta zergatik MONDRAGON UNIBERTSITATEAn?

Gehienbat Mendeberrri proiektua zertan datzan irakurri ondoren aukeratu nuen, baina, horrez gain, talde txikiak eta metodologia parte-hartzaile batean oinarrituta zegoela ere entzunda nuen. Gainera, gra-

dura egokitzen zen lehenbiziko unibertsitatea zen eta nik nahi nuen irakasle profilerak egokitzeko aukera ematen zidan, tutore eta heziketa fisikoko irakasle moduan trebatzeko aukera. Aldi berean, egokitze horrek ikastetxeetan praktika gehiago edukitzea eskaintzen zuen.

“Talde txikiak eta metodologia parte-hartzailea gustatzen zaizkit gehien”

• Nola baloratuko zenuke orain arte bizi duzun esperientzia?

Bizitako esperientzia orokorrean oso ona izan da, bai ikaskideekin eta baita irakasleekin ere konfiantzazko giroa baita nagusi. Modu horretan, errazagoa da irakasle lanbiderako beharrezkoak ditugun gaitasunak eskuratzea. Hau da, talde lana, simulazioak, proiektuak, aurkezpenak, praktikak... konfiantzazko giro batean egitea, eta gainera, ezagutza desberdinen arteko harremana oinarri denean, ikaste esperientzia aberasgarria bihurtzen da.

• Zelan definituko zenuke HUHEZiren hezkuntza eredua?

HUHEZiren hezkuntza eredua berritzailea dela esango nuke, irakasleen gertutasuna,

giroa, talde txikiak, metodologia parte-hartzailea eta jakintza alorren arteko integrazioa gaur egun ikaskuntza unibertsitatean ikustea zaila dela uste dudalako. Horrez gain, ikertzailea eta gogoetatsua ere badela uste dut, izan ere, izaera kritikoa eta jakin-mina transmititu baitit.

• Zer moduz praktikak?

Praktikak egin ditut eta orain ere praktika aldiari nago. Bigarren mailan burutu nituen lehenbiziko praktikak Mendaroko Ikastolan eta hirugarren mailako praktikak Arizmendi Ikastolan gauzatu nituen. Orain aldiz, Antzuolako Herri Eskolan ari naiz praktiketan proiektu bidezko metodologia dela eta. Elgoibarren praktikak egitea falta izan zait, hala ere, nire intentzioa eredu desberdinak ezagutzea izan da eta Elgoibarko bi ereduak esperientziatik eta bertan lan egindako edo praktiketan arituko pertsonengandik ezagutzen ditut.

• Behin gradua bukatuta, zeintzuk dira zure asmoak?

Intentzioa ikertzaile profila garatzea da, orain beka batekin MIKER ikertaldearekin lankidetzan ari naiz, baina horrez gain, hurrengo urtean Hezkuntza Testuinguru Multikultural eta Eleaniztunetan (EKOMU) unibertsitate masterra egin nahi dut. Hori bai, ahal bada behintzat, lanean nagoen bitartean egin nahiko nuke, izan ere, modu horretan ikasten ari naizen hori guztia praktikan jartzeko aukera edukiko nuke.



Maialen Arnedo

Bukatu da, bukatu da, bukatu da, se acabo!

Azken aste hauetan, hainbat zozok eta beste zenbait belek esan digute agur eta gure txanda da oraingotan. Atzera begira jarrita, badira hiru urte inguru erronka honi ekin genionetik eta egia esan behar baldin badut, sentsazio gazi-goza da daukadana. Gozoa, gure pentsamendu eta iritziak plazaratzeko aukera izan dugulako. Gazia, ez dakidalako transmititu nahi genuena helarazteko gai izan ote garen.

Esku batean kafea, bestean orain arte idatzitako hitzak, zozoaren paporean jarri eta hegaka beleari bidalitakoak. Horrelaxe hasi dut gaurko eguna. Euskararen egoera, gazteon beharrak, dispertsioa, hezkuntza... gai ugari izan ditugu hizpide hilabete hauetan zehar. Aurrera egiten du denborak, astiro, pauso irmoz, baina, gai hauetan, atzeraka goazela iruditzen zait niri. Barroteen arteko askatasun egarria eta senideen kilometro andana. Gure hizkuntzak ematen diguna eta hainbatek kendu nahi diguna. Gazteon indarra eta burua altxatzeko gogoia. Hezkuntza euskaldun bat jasotzeko eskubidea, euskal herritar guztiona, gurea. Hortxe daude guztiak, adreiluz jositako horma zabal baten aurrean, ezin aurrera eginda.

“Gure ibilbidea hemen bukatzen da, baina etorriko dira zozo eta bele gehiago”

Baina alde positiboak ere ezin ditugu ahaztu eta pareta hori apurtzeko ahaleginak egiten dabilzanak merezi dute aipamenik. Horiei guztiei, biba zuek! BARRENEKO gure ibilbidea hementxe bukatzen da, baina etorriko dira zozo eta bele gehiago atzetik. Beraiei, aprobetxatu dezatela eta askatu ditzatela barrenak. Zuri, Joanes, eskerrik asko, plazer bat izan da. Eta adreiluzko oztopoak suntsitu nahian zabilzatenoi Maialen Lujanbiok Euskal Herriko bertso txapelketan esandakoa: “Herri hau sortzen segi degagun, euskaratik eta euskaraz!”.



Joanes Rodriguez

Batzuetan, nahi ez arren, beharrezkoa da betiko profetei entzuteari utzi, eta ipuin kontalari berriak topatzea. Esan duzun bezala, azken aste hauetan, BARREN mehetezarekin batera, kolaboratzaile andana berrizatzeko garaia ere iritsi dela eta urte hauetan zehar gurekin barren-kide izan diren asko agurtu dira. Norra ote doaz? Non dabilta?

Askotan galdetu izan diot neure buruari BARRENEKO pasadizo ezberdinetan irakurtzen ditudan notiziak, BARRENik izan ez balitz non irakurriko ote nituzkeen, baita protagonista horiek non ikusiko nituzkeen ere. Bagera batzuk Elgoibartik nahi baino gutxiago ibiltzen garenak eta BARRENEK nolabaiteko lotura bat ematen digu gure herriarekiko, herritarrekiko.

“Zure falta sumatuko dut, Maialen. Euskaraz eta euskaragatik, aurrera”

Onartu genuen erronka duela hiru edo lau urte, noraino iritsiko ginen jakin gabe, baina elkarrekin egingo genuenaren segurtasunarekin: Aupa Elgoibar! Anek eta Maialenek eman ziguten hitza, oso go-goan dut nola gainera... Zuk Gasteizen hasi zenuen, nik berriz Bilbon (gaur egun, toki ezberdinetatik idazten dudan arren, gaurkoan adibidez, Zaragozatik).

Azkena den honetan, hausnarketa sakonak baino gehiago kontzeptu sinpleak azpimarratu nahiko nituzke esanaz ona dela gertae-rak, gertatutakoan gertatuta ere, gertatzea. Agian seinaleak dira, agian, gaizki ulertuak bakarrik. Argi dago mezu eta adierazpen garbiak direla gehienetan. Erabaki guztiak daude ongi hartuak, hauek jasateko gai bagara; burua lasai mantentzen badugu, ikusi nahi ez duen itu bat bezalaxe. Pena da amaitzea, berriz hasi beharra (edo ez), baina bizitza zikloak dira, zirkuluak. Eskerrik asko, Maialen, zure falta sumatuko dut: Euskaraz eta euskaragatik, aurrera, beti aurrera!

MEKANOSA
Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

CORDON VILARCHAO

San Roke, 7 behea
Pai. Glaso - Glasaga kalea, 18 - 25 eta 26 mailakoa
Tel. 943 749 570

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zolak estaltzea
Lantutua: eguz, aluminio, PVC
Prestak gurekin

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil HIZKUNTZA
ARDURADUNA Ainara Argoitia PUBLIZITATEA
Leire Rubio MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Andres Alberdi, Angel
Ugarteburu, Noemi Otegi, Ainara Sedano,
Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen
Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose
Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga, Danele
Sarriugarte, Mikel Olaizola, Esti Gonzalez,
Miren Vives, Maitane Mendikute, Janire
Elordi INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. TIRADA
4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92
ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:

ELGOIBARKO IZARRA 50
KULTUR ELKARTEA

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia



■ GUTUNAK

Eskerrik asko

Morkaiko Mendizale Elkarteak eskerrak eman nahi dizkizue Morkaikoren Egunagatik. Eskerrik asko parte hartzaile guztiei. Eskerrak Usua kafetegiarri. Baserritar guztiei, bereziki Irunabe eta Otsourtia etxekoei. Elgoibarko Parrokiari. Bihar-Dana, Kalamua eta Konporta elkartei; Eroskiri, Bollari eta Frupi frutadendei; Sahatzu, Patxi, Iraola, Armueta, Ziarda eta Landa harategiei; Julio Buenori eta Ibartxiki ardoaki, Dori urdaitegiari eta Idarragari beraien produktuak emateagatik. Jai Alai tabernari. Eizagirre okindegiari, Jose Ignacio Jauregi, Jose Ignacio Laskurain, Iñasio Garmendia, Mari Juli Conde, Gloria Barrutia, Azucena Sanz, eta Nerea Barutiari, haurren ibilbideaz eta bazkariar arduratzeagatik. Sahatzuri, bazkari ederragatik. Atxutxiamaikari. Pako Iriondoren omenaldian parte hartu zuten bertsolari, dantzari eta txistulariari. Pakori berari. Ohiana Apellaniz, Patricia Navó eta Ekine Alkortari. Nettori. Aitor Zabalari (DV) eta Asier Orbeari (BARREN). Kutxari. Udaleko brigadari. Udal kirol Patronatuari, Elgoibarko Udalari, Debemeni. Inor ahaztu badugu, barkatu. Eskerrik asko bihotzez.

Morkaiko Mendizale Elkarteak

Elgoibarren 0 Zabor

Zaborrarekin arazo larria daukagu toki guztietan. Azken hamarkadetan zabor kopuru izugarria pilatu dugu. Gipuzkoako zabortegeak goraino daude. Beraz, orain arte bezala ezin dugu jarraitu. Hori horrela, konponbidea aurkeztu da, Gipuzkoan: Hondakinen Bilketa Selektiboa. Honek herri-tarren inplikazioa eskatzen duenez, eztabaida sorrarazi du gure herrietan. Baina bai alde batetik, bai bestetik, birziklatzea behar beharrezkoa zaigu, eta derrigorrez egin beharrezko gauza da, zergak ordaintzen diren bezala. Hau da egia.

Konparaketa eginez gero, 5. kontenedorea (borondatezkoa) jarrita dagoen herrietan azken urteetako datuak ez dira oso onak, % 30 inguruan baitabilta, baina atez atekoa dagoen tokietan, ordea, %80 birziklatzen ari dira. Atez atekoa hondakinen bilketa egiteko sistema bat da, eta tresna ona dela ziurtatu da. Halere, esan behar, beste proposamen batzuek begira daitezkeela, helburua baita inportantea (%75etik gora birziklatzea) eta ez sistema bera.

5. Kontenedorea dagoen tokian beste azpiegitura garesti eta arriskutsua egotea beharrezkoa egiten da: errauskailua, hain zuzen ere. Errauskailuak ez du birziklatzen, erre egiten du, eta zenbat

eta gehiago hobe. Bestela ez da errentagarria. Eta hondakin arriskutsuak sortzen ditu. Hau ere, inork ez du nahi bere herrian.

Honen aurrean, herritarrei nahi diegu dei egin, etorkizuna hondakinen bilketa selektibotik datorrela ikusten dugulako, eta helburua garbia izan behar dugu: zaborra hondakin bihurtzea, gero eta zabor gutxiago sortzea, eta azkenik, 0 zabor lortzea. Horretarako, maiatzak 17, ostiralean, 18:00etatik 20:00etara, mahaia jarriko dugu San Frantzisko iturrian, arduraturik dagoen guztia gure hurbil dadin, informazioa eta kezak azaltzeko. Eta datorren hilaren 25ean, larunbata, Usurbilera bidaia antolatuko dugu. Han, bertan izan duten esperientzia azalduko digute, herria erakutsiaz. Trenez joango gara, goizeko 8:20an.

Anima zaitztezte, elgoibartarrok.

Elgoibar Zero Zabor

Eskerrik asko!

Orain dela hiru aste Euskadiko Txapelketa jokatuko genuen eta pasa den asteburuan Zilarrezko Ohorezko mailara igotzeko txartela izan dugu jokoan Olaizagan. Zorionez, amaiera ezinhobea izan da, eta gure helburua bete dugu! DUGU honetan ez gara Tecnifuelle taldekoak bakarrik sartzen; igoera hau denona da! Sanlo E.K.T. gure klubarena da batetik, bi txapelketak etxean jokatzekeo oparia egin digutelako eta lan bikaina egin dutelako hauek antolatzen.

Bestetik, babesle guztiek ere hartu dute parte igoera honetan; haien laguntzari esker ere iritsi gara honaino. Eta noski, zilarrezko domina urte guztian zehar Olaizagara gerturatu zareten zale guztien ere bada! Eskerrik asko zuen babesgatik eta harmailak leporaino betetzeagatik! Kiroldegian horrela jokatzea oso berezia izan da denontzat eta ez dugu inoiz ahaztuko! Igoera hau ez da urte honetako lanaren saria bakarrik izan. Jokalari eta entrenatzaile, ez, indarrak berritzen lagundu digute), Jenó, Aitor, Nicolas, iz...

EHBildu Elgoibar

A black and white close-up portrait of Imanol Leizabe, a man with short hair, looking directly at the camera with a serious expression. He is wearing a dark, textured jacket.

IMANOL LEIZABE

AERONAUTIKA INGENIARIA

**“Gidaria garrantzitsua da,
baina autoa da klabea 1 Formulan”**

Goi mailako aeronautika ingeniaria da Imanol Leizabe elgoibartarra. Madrilen egin zituen ingeniari-tza ikasketak, eta gero Epsilon auto enpresan egon zen lanean, Azkotian. Horixe da bere afizioa, hain zuzen ere: autoak. Ume-umetatik dauka autoetarako zaletasuna. 1 Formula zale amorratua izan zen garai batean, eta ez zuen lasterketa bat bera ere galtzen. Autogintzan lan egitea zen bere ilusioa, eta 32 urterekin, bere ametsa lortu duela esan dai-teke: 1 Formularako egiten du lan, München (Alemania), autoen atal aerodinamikoa lantzen. Horrez gain, Lotus etxearentzat ere lanean dihardu, Le-Manserako autoa prestatzen. Besteak beste, Lotus t128, HRT F112 edota Citroen DS3 WRC autoetan egin du lan elgoibartarrak.



Nola iritsi zara ingeniari aeronautikoa izatera?

Eibarko La Salle ikastetxean hasi nituen ikasketak, eta gero, Madrilen egin nituen ingeniari-ritza aeronautikoko ikasketak. Ez zitzaizkidan hegazkinak gehiegi gustatzen; nire pasioa autoak ziren, eta bereziki, aerodinamika. Moto Sport deitzen dena egin nahi nuen, hori zen nire ideia. Egia da hegazkinak ezagutu nituenean gustua hartu niela, baina nire zaleztasuna beti autoak izan dira. Aitari ere izugarri gustatzen zaizkio, eta umetatik jaso dut zaleztasun hori. 3-4 urte nituela 1 Formula auto batean ateratu nuen argazkia Suitzan. Pozozik nago erretratu horretan.

Epsilon Euskadi enpresan ere egon zinen lanean. Nola gogoratzen duzu etapa hura?

Ikasketak bukatu nituenean aeronautika alorreko kontsultoria baten hasi nintzen lanean Madrilan bertan. Lana zer zen ikasi nuen han, eta urte politak izan ziren. Baina lan hark ez zeukan autoekin zerikusirik. Banekien zaila zela Moto Sport egitera iristea, baina Epsilonen sartzeko aukerak aztertzen hasi nintzen. Saiatu beharra neukan. Banekien momentua hura zela, eta ez banuen ahalegina egiten orduan, banekien ez nuela sekula egingo. Epsilonek master bat eskaintzen zuen Azkoitin, eta Madrilgo lana uztea erabaki nuen, master hori egiteko. Bukatu bezain pronto eskaini zidaten lanpostua, beraz, zerbait ondo egin nuela esan dezaket. Moto Sport-eko auto bat nolakoa den, eta ingeniartzako jakintza guztiak auto batean nola aplikatzen diren ikasi nuen Epsilonen.

1 Formularen sartzear egon zen Epsilon. Zer-

gatik ez zuen aurrera egin proiektu hark?

Anbizio handiko proiektua zeukan Epsilonek. 2009an, ni masterra egiten nengoenean, 1 Formulako proiektua prestatzen ari ziren. 2010ean hiru talde berri sartu ziren 1 Formularen, eta aukeren artean zegoen Epsilon, baina kanpoan geratu zen. Proiektu polita zuten, eta jende oso ona zegoen hemen lanean, baina ez zuten aukeratu. Proiektu horretan jardun nuen lanean, aerodinamika saillean. 1 Formularen sartzeko dirutza handia ekartzen du, baina ez zuten lortu, proiektua bertan behera geratu zen. 1 Formulako talde euskaldun bat munduan zehar lehiatzen ibiltzea izugarria izango litzateke. Dena dela, esperientzia oso ona izan zen niretzat eta asko ikasi nuen. Horrek gainera, atea ireki zidan gaur egungo lanerako.

1 Formularen lan egitera iritsi zara. Zure ametsa bete dela esan daiteke?

Bai, horrenbeste betetzen zaituen lan batean jardutea polita da. Pozik nago hartu nuen erabakiarekin eta ez naiz damutzen. Epsilonen izan nuen nagusiaren bitartez iritsi nintzen Munichera, eta 1 Formularako lanak

“Orduak eta orduak eman ditzaket gidatzen. Gidatzea plazerra da niretzat”

egiten dituen kontsultoria baten egiten dut lan. HRT talde espainiarrarentzat lanean hasi ginen. Bagenekien irabaztea zaila izango zela, baina autoa lehiari ikusten genuen eta hori oso polita da. Hori bukatu zenean, beste proiektu batzuetan hasi nintzen lanean, besteak beste, Lotusek Le Mans-erako daukan proiektuan. Lotus T128 autoan lan egin dut eta hilabete barru lehiatuko da Le Mans-eko proban. Hantxe izango naiz ni ere, eta autoa nola dabilen ikusi ahal izango dut. 1 Formulako beste talde batentzat ere egiten ditut lan batzuk.

Zein da zehazki zure lana?

Aerodinamikaz arduratzen naiz. Lehenengo aerodinamikako soluzioak diseinatzen ditut ordenagailuan, eta gero soluzio horiek probatzera joaten gara haize tunelera. Oso lan polita da, baina ez da horren *glamourosoa*. Ni ez naiz lasterketara joaten, eta ez naiz egoten pistako ingeniari taldean. Bulegoan egiten dut lan gehiena. Iaz Monzako lasterketara joaten saiatu nintzen, baina oso zaila da gonbidapenak lortzea. Aurten ere saiaturiko naiz.

1 Formula barrutik bizi duzu orain. Zaletu gisa ala barruko langile gisa gozatzen duzu gehiago?

Desberdina da, eta egia da 1 Formula bizitzeko modua aldatu zaidala. 15-16 urterekin nire pasioa zen 1 Formula. Entrenamendu eta lasterketa guztiak ikusten nituen, gidarien denbora guztiak nekizkien, eta pasioz bizi nituen txapelketak. Gaur egun gehiago gustatzen zait autoaren teknologia. Zer probatzen duen talde bakoitzak, berrikuntzak, nola hobetu daitekeen autoa... Horrek betetzen nau. Gaur egun ez ditut lasterketa guztiak ikusten, eta ez da ezer pasatzen, baina lehen ez nuen bat bera ere galtzen. Hala ere, hemen ez dago 1 Formularako tradizioirik. Azken urteotan Fernando Alonsoren bueltan sortu da halako mugimendu bat eta badirudi hori betidanik izan dugula, baina hori guztia oso berria da. Hemen ez dute kirol hau asko sustatu, eta esango nuke hemen ez dela kirol hau asko preziatzen. Orain dela hamar-hamabost urte ez zituzten 1 Formulako lasterketak telebistaz eman ere egiten. Nik alemanieraz ikusten nituen lasterketak! 90eko hamarkadaren bukaeran ETBk ematen zuen zeozer, baina gutxi. 1 Formularako tradizioa Ingalaterran eta Italian dago bereziki, eta Moto Sport-aren hizkuntzak ingelese eta italiar dira. Gidari

guztiekin hitz egiten dituzte bi hizkuntza horiek, eta neuk ere bai.

1 Formula ingeniarien txapelketa dela entzun izan dugu sarri. Zenbaterainoko garrantzia dauka autoak eta zenbaterainokoa gidariak?

Gidaria garrantzitsua da, baina autoa da klabea 1 Formularen. Gidariak asko egin dezake, baina autoak ez badu maila ona ematen, alferrik da. Badaude gidari erregularrak direnak, lasterketa guztietan puntuak lortzen dituztenak eta lasterketa oso ondo irakurtzen dutenak, baina oro har, autoa da garrantzitsua.

Aurtengo txapelketan zein auto zaindu behar dugu?

Ferrari badirudi oreka ona lortu duela F138 autoarekin, eta Red Bull ere oso ondo ibiliko dela uste dut. Aurtengo diferentziak ez dira oso handiak izango. Datorren urterako, aldiz, araudian aldaketa nabarmenak egingo dituzte eta talde guztiak argi ibili beharko dira. Lan handia egin beharko dute autoak araudi horretarako prestatzeko. Datorren urtean lehiakorra izan nahi duenak, dagoeneko auto berria prestatzeko lanean hasi behar du. Berrikuntza handiak ikusiko ditugu.

Nork irabaziko du aurten 1 Formulako munduko txapelketa?

Vettel eta Alonsoren artean egongo da. Ez ditut oso gustuko bi gidari horiek, baina bietako batek irabaziko duela esango nuke. Fernando Alonso oso gidari ona da. Lasterketak oso ondo irakurtzen ditu, eta gidari oso erregularra da. Lasterketa ia guztietan lortzen ditu puntuak, eta bukaeran beti dago txapelketa irabazteko lehian. Hala ere, nik ez diot begirune handirik. Niri gehien gustatzen zaidan gidaria Kimi Raikkonen da. Gidari azkarrenetarikoa da, eta azken urteetan lasaiago dabilenez, kontuan hartu beharreko gidaria dela uste dut. Lotus autoa oso ondo dabil gainera, eta izugarri gustatuko litzaidake berak irabaztea.

1 Formularen diharduzu lanean, baina zure eguneroko bizimodurako zein auto daukazu?

Volvo bat daukat. Ez da auto deportiboa, baina oso auto ona da. Bidaiatzeko eroso eta gidatzeko ere bai. Izugarri gustatzen zait gidatzea, gozatu egiten dut gidatzen. Oraingo honetan hegazkinez etorri naiz Bilbora, baina udan autoz etorriko naiz. Ez zait batere kostatzen, orduak eta orduak eman ditzaket gidatzen. Gidatzea plazerra da niretzat. Ferrari bat gidatu izan dut pare bat aldiz, eta sekula-

koa da. Mendi bideetan gidatu nuen, eta sentsazio hori ikaragarria da. Enpresako auto deportibo bat ere izan genuen: Lotus bat. Alpeetara joan eta mendi bideetan ibiltzeko oso egokia zen, eta oso polita zen.

Alemanian, gainera, ez dago abiadura mugarik. Zer iruditzen zaizu hori?

Auto industriaren mesederako hartutako neurria da, Porsche edota Mercedes bezalako enpresak babesteko, baina ez dakit ondo iruditzen zaidan ala ez. Kontraesaneko neurria iruditzen zait. Batetik alemaniarrek ekologiarekin alde agertzen dira, eta araudia oso gogorra da alor horretan, baina 200 kilometro orduko abiadura askoz gehiago kutsatzen da ingurumena. Auto deportiboak gidatzeko oso ondo dago abiadura mugarik ez egotea, baina ez da neurri koherentea.

“Alonso eta Vettelen artean egongo da aurtengo txapelketako irabazlea”

Nolakoa da Municheko bizimodua?

Lagunen, senideen eta Euskal Herriaren falta nabari dut. Lanean zumaia bat badago, eta harekin beti euskaraz hitz egiten dut, ez dudalako hizkuntza galdu nahi inolaz ere. Alemaniarrak harrিতa begiratzen gaituzte euskaraz dihardugunean. *Hori ez da espainola!* esaten digute. Alemaniera gutxi hitz egiten

dut. Ingelesez egiten dut lan, eta München ingelesez egiten dut bizimodua. Gustura nago, baina Euskal Herriko giroa falta zaio honi. Hemengo jendea udaberri eta uda partean irreten da kalera, baina negua oso tristea eta luzea da München. Bizi-maila altua da, eta jendearen janzkeran edota dituzten autoetan nabari da. Bizitzeko toki polita da, baina hegaldi merkeak izango banitu Municheetik Bilbora sarriago joango nintzateke bisitan. Egia da nire lanak izugarri betetzen nauela, baina bizitza honetan dena ez da lana. Niretzako egokiena 1 Formulako enpresa euskaldun batean lan egitea izango litzateke. Haize tulleetik irten, eta segidan lagunekin soziedadean afaldu ahal izatea izango litzateke onena, baina dena ezin da.

Alemania Europako motorra dela entzuten dugu hemen. Zuek igari duzue krisiaren eraginik?

Babieran ondo bizi gara, baina Babierak ez du Alemania osoa ordezkatzeko. Oro har Alemania ondo dabilela esango nuke, baina pentsioekin eta mini-job delako horiekin arazoak daudela esaten dute albistegietan. Alemanian ere dena ez da ona, eta krisiak hainbeste eragin ez badu ere, badituzte beste arazo batzuk. Egia esan, ez dut alemanieraz asko hitz egiten, eta albistegi askorik ez dut ikusten. Herralde batera joatean hango hizkuntza ikasi behar dela uste dut, baina hainbeste ordu lanean eman ondoren, kirola egin eta deskonektatzeko gogoia izaten dut batez ere.

Ainhoa Andonegi



2011tik indarrean dagoen zaborren planera batzeko eskatu dio Udal Gobernuak Bilduri

Hondakinen kudeaketarako Bilduk aurkeztu zuen proposamenari erantzun dio alkateak

Hondakinen kudeaketa hobetzeko EHBildu Elgoibarrek joan zen astean prentsaurrekoan aurkeztu zuen proposamenari erantzun dio Alfredo Etxeberria Elgoibarko alkateak: "Proposamen hori ez da ekarri handikoa izan". Bilduk proposamen "antzua" eta "edukirik gabea" aurkeztu duela esan du Etxeberriak: "Ez dugu asmo onak saldu nahi dizkigun inoren beharrik. 2011ko urritik indarrean dagoen zaborren kudeaketa plana daukagu, eta Bilduk plan horretara batu beharko luke".

Era berean, ez dela batera eta bestera zabuka ibiltzeko unea uste du alkateak, eta legegintzaldiko lehen bi urteetan Bilduk erakutsitako jarrera gaitzetsi du. Bere iriziz, Batzar Nagusiek aho batez onartu zu-

ten hondakinen kudeaketa sistemari oztopoak jarri besterik ez dio egin Bilduk. Gaizki egindakoak onartu eta gehiengoak adostutako akordioekin bat egitera deitu ditu Etxeberriak, eta elkarlanean aritzeko prest dagoela jakinarazi die: "Pozik arituko ginatete elkarlanean", adierazi du. Dena dela, gauza bat argi dauka Udal Gobernuak: "Herritarrei hondakinak etxean gaika kudeatzea baino ezin diegu eskatu. Ezin diegu esan hondakinak opari paperean biltzeko, eta, gainera, poltsa horrek usainik eduki ez dezala eskatu. Eta, Bilduk orain arte jakinarazi digunaren arabera, Elgoibarraren aginduko balute atez atekoa jarriko lukete. Hori horrela balitz, zer egiteko asmoa dute berriz erabiliko ez diren hondakin kopuru handi horrekin? Kontuan izan behar

da zaborteziak debekatu dituela Europak". Europak ezartzen dituen helburuei buruz lortzeko modukoak direla uste du Alfredo Etxeberriak.

Edukiontzi marroia

Gaur egun, Elgoibarko familien erdiak bat egin du hondakin organikoen gaikako bilketarekin, edukiontzi marroiaren bitartez. Elgoibarko Udalak eman dituen datuen arabera, 4.389 familia gonbidatu dituzte bilketa mota honetan parte hartzera, eta horietatik, 2.209k eman dute izena. Oraindik izena eman ez duten familiak animatu nahi ditu alkateak. Interesatuak herritarrentzako arreta bulegoan eman behar dute izena, eta han bertan eskuratuko dute behar duten beste informazio eta beharrezko material guztia.

Eguneko zentroa kudeatzen duen enpresarekin akordiorako oinarriak lotu ditu ELAk

Astelehenetik greba mugagabea daude Gipuzkoako hainbat zahar etxetan. Espainiako lan erreforma ez ezartzea eta soldata handitzea eskatzen dute langileek, baina ezetza eman die Adegri patronalak, eta ondorioz, enpresaz enpresa ari dira sindikatuak akordiorako oinarriak lotzen. Izan ere, uztailaren 7rako akordiorik lortzen ez badute, Espainiako hitzarmena jarriko dute indarrean Gipuzkoan (lanordu gehiago eta soldata txikiagoa izango lukete langileek). Edizio hau ixteko ordurako Elgoibarko eguneko zentroa kudeatzen duen enpresarekin akordioa lortu zuela jakinarazi zuen ELAk. Atzo 14:00etan zuten akordioa izenpetzekoa. San Lazaro egoitza kudeatzen duen enpresako ordezkariak, bestalde, asteazkenean batu ziren Gipuzkoako Foru Alkundiko ordezkariekin. Batzar horretan enpresak aldeko jarrera agertu zuela jakinarazi zion BARRENI ELAk baina Elgoibarko Udalak zer erabaki zain zeuden artean.

Kalebarren plaza betetzeko deia egin du Herrirak biharko

Bakea lortzeko bidean, presoen eta erbestean dauden herritarren eskubideak errespetatzeko eskatu du Herrirak: presoak Euskal Herrira ekartzea, gaixotasun larriak dituztenak aske uztea, kartzela zigorren luzatzeak amaitzea eta bizi osorako espetxe zigorra suposatzen duten neurriak derogatzea. Eskaera horiei bultzada emateko eta Espainiako zein Frantziako Gobernuari pausuak emateko exijitzeko, plazak betetzeko deia egin dute. Elgoibarren Kalebarren plaza betetzera deitu dituzte herritarrak biharko. 12:00etan batuko dira, eta 12:30ean aterako dute argazkia. 15:00etan elkartasun bertso bazkaria egongo da Lekuederren eta arratsalderako musika saioa antolatu dute. Horrez gain, biharko ekitaldiari soinu banda jarri dio Elgoibarko Herrirak. Uxue Alberdik idatzi du kanta eta K-104 taldeak jarri dio musika.

Irudia **Saxofoi topaketak**

Hamar musika eskolatatik etorritako ehundik gora saxofoi-jotzaile batu ziren zapatuan Hamaikasax jaialdian, eta saxofoi hotsak nagusitu ziren Elgoibarko kaleetan. Kalejira egin zuten lehenik, eta arratsaldean kontzertua eskaini zuten Herriko Antzokian. Musika giro alaiean pasatu zuten eguna.

Arg.: Aitor



Hondakinak **Zero Zabor**

Zaborren eta hondakinen gainean arduratuta dagoen herritar talde batek gai horri buruz informatzeko mahaia jarriko du gaur San Frantzisko iturrian, 18:00etatik 20:00etara. Gaiaren inguruan interesa duen oro gonbidatu dute mahai horretara hurbiltzera. Etorkizuna gaikako bilketatik datorrela uste dute, eta zaborra hondakin bihurtu behar dela diote, zero zabor lortu arte. Horren harira, Usurbilera egingo dute bisita maiatzaren 25ean, han izan duten esperientzia ezagutzeko (8:20ko tren hartuko dute).

Diru-laguntzak **Gazte ekimenak**

Haurrei, nerabeei eta gazteei garatzeko aukera, eta aldi berean, haurtzaroaz, nerabe-zaroaz eta gaztaroaz gozatzeko aukera etengabea eta egonkorra eskaintzeko diru-laguntzak atera ditu Gazteria Sailak. Nerabeen eta gazteen ekimenak bultzatu nahi ditu Gazteria Sailak, haien interesekoak eta gogokoak diren arloetan. Diru-laguntza horien xede diren esparruak anitzak izan daitezke: osasuna, kultura eta aisialdia, prestakuntza, lana, etxebizitza, euskara, ingurumena, gizarte-partaidetza, lankidetzak, berdintasuna eta kultur aniztasuna. Deialdi horren oinarriak ondorengo helbidean kontsulta ditzakezue: http://www.elgoibarren.net/images/stories/2013/13_maiatza/2013gaztedirulaguntzak.pdf. Interesatuak eskaera orria bete eta herritarren arretarako bulegoan entregatu beharko dute maiatzaren 31rako.

Diru-laguntzak **Mendekotasun egoerak**

Drogamendekotasun edo bestelako mendekotasun egoeran daudenentzako diru-laguntza deialdia egin du Elgoibarko Udalak. Elgoibartik kanpoko EAEko zentro publikoren edo itunduren batean tratamendua jasotzen duten pertsonen emango dizkiete laguntzak. 2013ko urtarrilaren 1etik 2013ko abenduaren 31ra doan epearen barruan egiten diren tratamenduetarako joan-etorriak lagunduko dira. Oinarriak eta informazio guztia ondorengo helbide honetan aurkituko duzue. <http://elgoibar.org/webb/udaltramiteak/2013drogomenpe.pdf>

Mendaroko Udalak argazkiak bildu nahi ditu

Trinitate jaietako eta Mendaroko Txirrindulari Elkarteak antolatutako ekintzetan ateratako argazki zaharrak bildu nahi ditu Mendaroko Udalak. Eskaneatu eta jabeei itzuli-ko dizkiete gero denak. Trinitateetako argazki zaharrak datorren egue-nerako behar dituzte, eta Mendaroko Txirrindulari Elkartearenak ekainaren 29ra arte jasoko dituzte.

Greba Batzordea sortzeko bilera martitzenean

ELA, LAB, ESK, EILAS, EHNE, Hiru, CGT eta CNT sindikatuek eta 60 gizarte eragilek maiatzaren 30erako deitu duten greba dela eta, Greba Batzorde zabala sortzeko deia egin dute Elgoibarren. Datorren martitzenean izango da lehenengo bilera 19:00etan, San Frantzisko iturrian. Euria egiten badu, Kultur Etxeko sotoan batu-ko dira.

Sigmako eskolaren 50. urteurreneko bazkaria

Sigmako eskola sortu zutenetik 50 urte pasatu dira, eta urteurrena ospatzeko bazkaria antolatu dute uztailaren 25erako. Eskolan bertan ikasitakoak eta auzoko jubilatuak gonbidatu dituzte. 11:00etan batuko dira eskolako patioan, eta segidan argazki zaharren proiektio bat ikusiko dute. Eguerdian bazkaria egingo dute. Interesatuak 45 euro sartu behar dituzte La Caixan: 2100 41 6871 2100263203.

Autokontsumoa eta kooperatiba elektrikoak

Autokontsumoa eta kooperatiba elektrikoak buruzko hitzaldia eskainiko du Jon Etxeberriak martitzenean, Elgoibarren. Energia berri-erabilgarrien erabilera eta Goiener edo Some Energia bezalako kooperatiba elektrikoak ematen dituzten aukerak azalduko ditu. 19:00etan, Kultur Etxean.



I. URTEURRENA

IMANOL ARRIOLA ZABALETA

2012ko maiatzaren 14an hil zen, 83 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurrenako meza izango da, zapatuan, maiatzak 18,
arratsaldeko 12:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak alde z aurretik.



ESKERTZA

JOSE LUIS REZOLA GARMENDIA

2013ko maiatzaren 11n hil zen, 66 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



ESKERTZA

HORTENSIA PEREZ GONZALEZ

*Hemen ez zaudenetik, amona
penaz oroitzen zaitugu
zure inguruan gauza asko
entzun eta dakizkigu
zuk utzi zenigun zulotxo
oso erraldoia dugu
negarrez hasita ginenean
bihotza puskatu zaigu.
Musutxo erraldoi bat emanda,
zure bilobak gera gu!*

Bilobak

*2013ko maiatzaren 13an hil zen, 85 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu
jasotako doluminak, hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.*



ESKERTZA

HORTENSIA PEREZ GONZALEZ

*Emazte, ama, amona, birramona
Beti izan zara
gure izarra.
Zure argia
gure bidea argitzen
maitasuna emanda
ezin gabe eskatu
beti irribarrez
beti lasaia
beti gure ondoan
bihotz handia eduki zenuen,
baina orain gelditu da*

*eta gure bizian
hotz handia daukagu orain.
Baina nahiz eta hori horrela izan
zure presentziak
zure maitasunak
zure taupadek
gurekin jarraituko dute
Lehen, orain eta betirako
zu zara guretzako
emazte, ama, amona
eta birramona hoberena.
Maite zaitugu*

Etxeokak



Sigma auzoko edukiontzi marroia hormaren kontra dago eta ezin da zabaldu:

"Sigma auzoko zabor edukiontzi marroia lekuz aldatu edo apur bat mugitu beharko luke. Hormaren kontra-kontra dago, eta oso zaila dago zabaltzeko. Adineko jendeak, bereziki, zailtasun handiak ditu edukiontzia zabaldu eta hondakinak barrura botatzeko. Bide batez, Udalari eskatu nahi genioke gure auzoan ere lurrazpiko edukiontziak jartzeko. Eskerrik asko".



Santa Ana kaleko espaloian baldosak apurtuta daude: "Santa Ana kaleko espaloian baldosak apurtuta daude aspalditik. Emakume batek zangoa hautsi zuen leku horretan, eta justu zona hori konpondu egin dute, baina baldosa gehiago daude hondatuta. Behin baino gehiagotan joan gara udaletxera abisua ematera, baina oraindik ez dute konpondu, eta iruditzen zaigu beste istripuren bat gertatu aurretik konpondu beharko litzatekeela. Mila esker".



Txalo bero bat CD Elgoibarko Kadeteen entrenatzaileei:

"Gurasoek eta jokalariek eskerrak eman nahi dizkiegu CD Elgoibarko Kadete A taldeko entrenatzaileei. Iñigo Perez eta Victor Perez txalotu nahi ditugu, denboraldi oso ona egin dutelako. Zorionak eta eskerrik asko egin duzuen lan guztiagatik".



Herri Eskolako umeen gurasoek eskerrak eman nahi diote ikastetxeari ipuin-kontalari egin dituztelako: "Kalamua guraso elkar-teak eta Herri Eskolak, ipuin kontalari bihurtu gaituzte gurasoak, gure seme-alaben geletan. Izugarri gustura parte hartzen dugu gurasoek ekintza honetan, eta gurasoak eskolan ikustea izugarri eskertzen dute gure haurrek. Jarraitu aurrerantzean ere horrelako ekintzak antolatzen! Irakurzaletasuna bultzatzeaz gain, gurasoak eskolaren parte sentitzen laguntzen duelako".

Mendiz mendi, Morkaikorekin

Arrakastatsua izan zen zapatuko Morkaikoren Eguna. 500 lagun inguruk hartu zuten parte guztira. Ia 300 lagunek egin zuten Elgoibarko Itzulia mendiz-mendi, eta beste 200 lagunek, nagusi zein umek, hartu zuten parte Itzulitxoan. Bukieran, Finalista Eguneko dominak banatu zituzten eta Pako Iriondo mendizalea omendu zuten. [Argazki gehiago eta bideoa www.elgoiBAREN.net webgunean.](http://www.elgoiBAREN.net)





Tecnifuelle, zilarrezko ohorezko mailara

Bigarrengoan bai. lazko arantza kentzea lortu du Sanloko Tecnifuelle taldeak, Zilarrezko Ohorezko Mailara igota. Elgoibarren jokatu zuten mailaz igotzeko kanporaketa joan zen asteburuan, eta azken partidari BM Valladolid taldearen aurka 26 eta 27 galdu arren, beste bi partidak irabazita eskuratu zuen txapelketa Tecnifuellek. Elgoibarko neskek, beraz, emakumezkoen eskubaloiko dibisiorik gorenetik urrats batera jokatuko dute datorren denboraldian. **Argazki gehiago ikusteko: www.elgoibAREN.net**



Viento Sur eskubaloi taldea igoera fasea jokatzeko sailkatu da

Eibarko Ruibal taldearen kontra jokatuko du asteburuan

Igoera fasea jokatzeko sailkatu da Elgoibarko Viento Sur eskubaloi taldea. Domekan zeukan ligako azkeneko partida, Aluminios Francisco Alberdi taldearen kontra, eta 59-76ko emaitzarekin galdu arren, elgoibartarrek aukera izango dute mailaz igotzeko. Francisco Alberdi taldeak bigarren bukatu du ligan.

Ligan hamalau dira guztira, eta sailkapen nagusian zazpigarren bukatu dute elgoibartarrek. Asteburu honetan jokatuko dute igoera faseko joaneko partida, Elgoibarren, Eibarko Ruibal Alcuiler de Vehiculos taldearen kontra. Lerro hauek idazteko unean zehaztu gabe zuten oraindik partida noiz eta zer ordutan jokatuko zuten.

Igeriketa Eguna ospatuko dute bihar, hilak 18, Elgoibarren

Igeriketa Eguna ospatuko dute bihar Elgoibarren. 6 urtetik 14 urtera bitarteko ikasleei zuzendutako jaia da. 9:45ean egingo dute hasiera ekitaldia, Olaizaga kiroldegian, eta gero, adinaren arabera frogak izango dira. Lehen Hezkuntzako laugarren, bosgarren eta seigarren mailakoen saioak 10:00etan hasiko dira, eta ondoren, 11:00etan, egingo dituzte lehenengo, bigarren eta hirugarren mailakoenak. Gaztetxoentzat uretako jolasak antolatu dituzte, eta nagusiagoentzat hainbat igeriketa proba.

Jesus de la Fuente elgoibartarrak irabazi du Gorlako Igoera, auto klasikoaren sailean




Zapatuan jokatuko zuten Gorlako Igoera, eta Jesus de la Fuente elgoibartarra nagusitu zen auto historikoen kategorian. Guztira, 68 lagunek parte hartu zuten proban, eta sailkapen nagusian 33. egin zuen De la Fuentek, bere Seat 124arekin. Hurrengo lasterketa Aian jokatuko dute, bihar zortzi, maiatzaren 25ean.

Urpekaritza probatu nahi dutenentzako saioa, maiatzaren 25ean

14 urtez gorakoentzako urpekaritza bataioa antolatu du Urbizi Urazpiko Jardueren Elkarteak maiatzaren 25erako. Elgoibarren izango da saioa, Olaizaga kiroldegian, 9:30etik 12:30ak bitartean. Doan izango da, baina izena eman behar da. Horretarako telefono zenbaki bat jarri dute: 607 530 461.

Gotzon Zulaiak bigarren egin du Gipuzkoako lokotx batze txapelketan

Gipuzkoako Lokotx batze txapelketa jokatuko zuten domekan, Legorretan. Lau lagun lehiatu ziren, tartean bi mendaroar: Gotzon Zulaiak iazko txapelketa eta Jon Larrañaga. 50 lokotx batu behar zituzten guztira, eta fin aritu ziren bi mendaroarrak. Azkeneko unera arte Zulaika aurretik joan zen momentu oro, baina bost-sei lokotx saskiratzearen faltan, huts egin zuen eta aurrea hartu zion Eneko Garmendia baliaraindarrak. Azkenean, Garmendia bera gailendu zen. 6 minutu eta 51 segundo behar izan zituen lan osoa betetzeko. Zulaika bigarren sailkatu zen (6:50), eta hirugarren egin zuen Jon Larrañagak (6:55).



Mailari eustea lortu dute Haundik eta Erregional mailako taldeak

Haundik Balmasedaren kontra jokatu du azken partida

Jardunaldi erabakigarria zuten aurreko asteburuko C.D. Elgoibarreko Haundik eta Erregionalak. Irabazi beharra zuten mailari eusteko, eta biek ere fin bete zuten euren egitekoa. Durangoko Kulturala hartu zuen etxean Haundik, eta 4-0ko emaitzarekin irabazi zion. Jardunaldi bakarraren faltan, beraz, 43 puntu ditu Haundik, eta mailari eutsita, beste lausaitasun batekin joango dira asteburuan Balmasedara. Haundiren aldean, zailago zuen Erregionalak. Azkeneko partida zuen asteburuko Erregionalak eta jaitsiera postuetatik puntu bakarrera zegoen, 33 punturekin. Irabaztea nahikoa zuten mailari eusteko, baina irabazi ezean, Mutrikuarrak SBBk egiten zuenaren zain egon behar zuten. Ez zen horren beharrik izan, baina. Erregionalak 1-3 irabazi zion Zumaiaikori kanpoan, eta Mutrikuarra SBBk 1-4 galdu zuen Anaitasunaren kontra.

Maite Maiorak estu hartu du Oihana Kortazar Erlaitz Aiako Harriak mendi lasterketan

Indartsu dabil Maite Maiora. Asteburuan bigarren egin zuen Aiako harrietan jokatu zen Erlaitzeko mendi lasterketan. Aurreneko aldia zen lasterketa batean Oihana Kortazar elgetarrarekin batera egokitzen zela, eta ikusmin handia zegoen Aizkorriko maratoira begira bata eta besteak eman zezaketena ikusteko. Lehia estua izan zen bien artean, eta Maiorak estu hartu zuen Kortazar. Azkenean, baina, elgetarra nagusitu zen. 2:06:17ko denboran osatu zuen garaileak 23 kilometroko ibilbidea. Maitek 2:07:45ko denboran egin zuen.

Areatzako Raid-a irabazi dute Imanol Garaizabal elgoibartarrak eta Aaron Garmendia laudioarrak

Berrogeita hamar bikotek parte hartu zuten Areatzako Raid orientazio proban, eta Imanol Garaizabal elgoibartarra eta Aaron Garmendia laudioarra izan ziren azkarrenak lau probak amaitzen. Dima inguruan jokatu zuten proba, eta Imanolek berak adierazi du gogorra bezain polita iruditu zitzaioela, bereziki bigarren treking-a. Proba horretan Jabi Guallar eta Iñigo Araujo bikote elgoibartarrak ere parte hartu zuten, eta bederatzigarren sailkatu ziren. Ekainaren 1ean jokatu dute hurrengo raid-a, Lizarran.



Hilaren 16an jokatu da jubenilen Elgoibarko Hiria Saria

Elgoibarko Hiria Saria txirindulari proba jokatu da maiatzaren 26an. Elgoibarko Lagun Taldeak antolatu du. Jubenil mailako lasterketa da, eta Kalegoen plazan hasiko da. Guztira, 86 kilometroko ibilbidea izango du, eta helmuga Santa Klaran egongo da.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 4 – Durangoko Kulturala 0 (3. maila)
 Zumaiaiko 1 – Elgoibar 3 (Erregionala)
 Zumaiaiko 1 – Elgoibar 1 (Neskak)
 Segura 3 – Elgoibar 2 (Jubenilak)
 Aretxabaleta 4 – Elgoibar 4 (Kadete A)
 Dunboa 6 – Elgoibar 2 (Kadete B)
 Elgoibar 1 – Amaiak Bat 2 (Ohorezko infantilak)
 Ilinxa 1 – Elgoibar 3 (Infantil txiki)

ESKUBALOAIA

Tecnifuelle 36 – BM Valsequillo 23 (Sen. neskak)
 Tecnifuelle 28 – UC Dosa BM 16 (Senior neskak)
 Tecnifuelle 26 – BM Valladolid 27 (Senior neskak)
 Urola A. Aranzadi 29 – Gabaz 24 (Senior neskak)
 Lauko 29 – Ehariidea 13 (Jubenil neskak)
 Eibar Eskubaloia 43 – Beristain 16 (Jubenil mutilak)
 Casa Astigarraga 27 – Egia Bera Bera 17 (Kad. nes)
 Aloña Mendi 30 – Karibe Zaharra 28 (Kad. mutilak)
 Eibar Eskubaloia 26 – Bankoa 24 (Infant. mutilak)
 Murgil Eraikuntzak 21 – Zarautz KE 11 (Infant. neska)
 Ereintza EB 12 – Aterpe 13 (Infantil neskak)
 Egia Bera Bera 19 – Cometel 15 (Infantil neskak)
 Aloña Mendi KE 12 – Alkideba Sanlo 19 (Alebin nesk)

PILOTA

Deba Arroko txapelketa
 Soraluze 22 – Lagunak 8 (Finalerdietako itzulikoa)
 Udaberri txapelketa
 Lagunak 22 – Beloki 0 (Ez da jokatu)
 Intxurre 22 – Lagunak 0 (Ez da jokatu)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 18
 11:30 Elgoibar – Kostkas Miren Bihotza (Kad. B)
 16:30 Elgoibar – Touring (Jubenilak)
 Domeka, 19
 15:30 Elgoibar – Intxaurdi (Neskak)

ESKUBALOAIA (Kiroldegian)

Zapatua, 18
 9:45 Cometel – Egia Bera Bera (Inf. neskak)
 11:00 Aterpe – Ereintza Aguaplast (Inf. neskak)
 12:15 Deca – Saieko La Salle (Inf. mutilak)
 16:00 Beristain – Aiadek Pulpo (Jub. mut.)
 17:30 Alcorta – Ereintza Aguaplast (Senior mutilak)
 Domeka, 19
 9:45 Alkideba neskak – Eibar (Alebin neskak)
 11:00 Ikus – Aluminios Aleman (Kad. nesk.)
 12:30 Tecnifuelle – Aiala Zarautz (Senior neskak)

PILOTA (Ikastolako frontoian)

Barixakua, 17
 21:30 Lagunak – Aretxabaleta

Apirilean...

JAIOTAKOAK



Naroa Cebrian Ruiz de Gauna Apirilak 20
Gorka eta Nerea



Urko Lodoso Telleria
Apirilak 3
Aitor eta Cristina



Maddi Ansola Arrieta
Apirilak 3
Josu eta Oihana



Elbire Lopez Gamino
Apirilak 17
Jose Luis eta Susana



Gorka Mancebo Isla
Apirilak 6
Fernando eta Almudena



Luken Barandela Marin
Apirilak 9
Roberto eta Ana Isabel

Danel Zaragozano Ecnarro Apirilak 6
Gorka eta Nora

Ander Gorostiza Mateos
Apirilak 9
Jon Gurutz eta Rosa

Ane Aranburu Arrizabalaga Apirilak 25
Juan Ramon eta Maria

EZKONTZAK

Luis Manuel Lopez eta Sandra Toledano • Apirilak 21
Fco. Vicente Franco eta Isabel Barrul • Apirilak 26

HILDAKOAK

Matilde Carrara Gonzalez • 82 urte • Apirilak 1
Jose Mari Zabaleta Urbieto • 86 urte • Apirilak 4
Angelita Lizundia Zabaleta • 76 urte • Apirilak 5
Mari Carmen Gasteain Etxeberria • 89 urte • Apirilak 5
Roberto Sol Oria • 81 urte • Apirilak 15
Francisca Ansola Agirregomezkorta • 93 urte • Apirilak 16
Cesar Coro Hubert • 89 urte • Apirilak 23
Santos Mugertza Leiaristi • 91 urte • Apirilak 28

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko zerbitzuak**

**Erietxe zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR

Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27

(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56

(Sakelekoa) 635 756 295


Jaiotakoen atalean zure seme-alabaren erretratua jarri nahi baduzu, hilabeteko lehenengo astelehenerako ekarri behar duzu erretratua **BARRE**neko erredakziora edo barren@elgoibarkoizarra.com helbidera bidali. Jaiotakoen argazkia jartzeagatik Elgoibarko Izarrako bazkideek **3 euro** ordaindu behar dute eta gainontzekoek **4 euro**.

Garikoitz Mendizabal txistulariak ‘Soseguak’ lana aurkeztuko du gaur Elgoibarko Herriko Antzokian

Saso-jotzaileek hartu zuten Elgoibar joan zen zapatuan, eta txistularien txanda izango da gaur. Garikoitz Mendizabal txistulariak (Zestoia, Gipuzkoa, 1973) *Soseguak* lana aurkeztuko du gaur, 20:30etik aurrera, Elgoibarko Herriko Antzokian. Mendizabal beraren hitzetan txistuarekin gutxitan adierazi diren sentimentuak kanporatzen ditu lan berrian: maitasuna, nostalgia, tristura, alaitasun neurtua, poza... “Erritmo, doinu eta emozioen bilduma da. Txistuaren bilakaera mugatu duen tradizio horretatik abiatuta gaurkotasan kutsu handiagoa eman nahi izan diot instrumentu honi”, adierazi du. Sentimendu horiek adierazteko, izen handiko lau musika egileren lanaz baliatu da: Santi Ibarretxe, Josu Elberdin, Xabi Zabala eta Kepa Junkera. Gaurko zuzenekoan, Kepa Junkerak, Xabi Zabalak, Mariano Santamariak, Oihane Igerabidek, Pello Ramirezek eta Iñaki Telleria musikariek parte hartuko dute.

Txistularien alardea

Bihar, zapatua, txistularien alardeaz gozatzeko aukera izango da Elgoibarren. 12:15ean kalejiran irtengo dira txistulariak, eta ondoren, 13:00etan, kontzertua eskainiko dute Kalegoen plazan.



Elgoibar Ikastolako lau talde saritu dituzte Gipuzkoako Aldundiaren Kosmodisea lehiaketan



Gipuzkoako Foru Aldundiaren Berrikuntzarako eta Jakintzaren Gizarterako Departamentuak antolatzen du urtero Kosmodisea lehiaketa, eta aurten Elgoibar Ikastolako hamar taldek parte hartu dute bertan. Horietako lau sariarekin itzuli dira. Lehen Hezkuntzako hirugarren mailako Ausartak3C taldeak hirugarren saria eskuratu du, Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako Bostekoak taldeak lehenengo saria eta Lehen Hezkuntzako bosgarren mailako Bostak Kosmoan taldeak bigarren saria. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Kosmopantxika taldeak, berriz, hirugarren saria eskuratu du.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak estreinakoz Mendaron

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoek *Sentitu*, *pentasatu*, *ekin!* ikuskizuna eskainiko dute Mendaron, ekainaren 7an (barixakua). Ikastolako patioan izango da saioa, 18:00etatik aurrera. Sarre-rak Mendaroko Morroskillo dendan jarri dituzte salgai, 7 euroan. Mendaroko Udalak antolatutako ekitaldia da. Joan den urteko azaroaren 18an aurkeztu zuten ikuskizun hau, Elgoibarren, eta geroztik emanaldi ugari eskaini dituzte han eta hemen.



Elgoibarko ludotekak Aste Nagusia ospatuko du gaurtik maiatzaren 24ra

17:00etan hasiko dituzte jaiak, txupina botata



Jaietan murgilduko dira gaur Elgoibarko ludotekan. 17:00etan emango diote hasiera Aste Nagusiari, txupina botata. Buruhandiak, zezenzikletak eta dantzaldia izango dituzte gaur. Astelehenean, berriz, Kirolari Eguna ospatuko dute. Herri kirolak antolatu dituzte eta haur eta gurasoen arteko futbolin txapelketa ere izango dute, 17:00etatik aurrera. Martitzena Txiki Eguna izendatu dute. Txokolatada izango dute eta magoa etorriko zaie bisitan. Txiki Egunaren atzetik, Gazte Eguna ospatuko dute asteazkenean. Kanturako eguna izango da. Sabelak ondo bete, eta karaokean kantuan jardungo dute gaztetxo eta begiraleek. Ostegun arratsaldea, berriz, sukaldean igaroko dute, ez baitute alferrik Sukaldari Eguna izendatu dute maiatzaren 23a, eta bukatzeko, barixakuan, Ludo Eguna izango dute. 16:30etik aurrera, haurrentzako tailerrak izango dira, Kalegoen plazan.

Eneko Gonzalez elgoibartarrak bigarren egin du Gipuzkoar erako aurreku txapelketan



Aurreku eta Soinu Zahar txapelketako finalak jokatu ziren joan zen asteburuan Errenterian eta Legazpin, eta beste behin ere maila handia erakutsi zuten Elgoibarko dantzari gazteek. Zapatuan lehiatu ziren Eneko Gonzalez eta Gaizka Uranga, Gipuzkoar erako aurreku txapelketan, eta Gonzalezek bigarren egin zuen. Uranga, berriz, bosgarren sailkatu zen.

Domekan, berriz, nesken txanda izan zen. Legazpin jokatu zen Euskadiko Neskatxena txapelketaren finala. 45 dantzarik hasi zuten txapelketa, eta hamabost onenak sailkatu ziren finalerako, tartean lau elgoibartar. Maila ona erakutsi zuten laurek ere Legazpin. Hona hemen emaitzak: Alaitz Egaña (5. postua), Oihane Agirrebeña (9. postua), Leire Astigarraga (13. postua) eta Nerea Sasiain (14. postua).

Bitoriano Loiola 'Ospas' eta Sabin Longarte omenduko dituzte Mendaron

Trinitate jaiak baliatuko dituzte Mendaron Bitoriano Loiola *Ospas* soinu-jotzailea eta Sabin Longarte panderojolea omentzeko. Horretarako, bazkari bat eta afari bat antolatu dituzte. Maiatzaren 26an izango da soinu bazkaria, Aizpe elkartearen, 14:30ean. Bazkaritako txartelak 25 euroan jarri dituzte salgai, Toki-Alai, Aitz-Beltz eta Txirristaka tabernetan. Biharamunean, berriz, bakailao afaria egingo dute, Aizpen bertan, 20:30ean. Afaritarako txartelak ere 25 euroan jarri dituzte salgai aipatutako hiru tabernetan. Maiatzak 24a izango da tiketak erosteko azken eguna. Informazio gehiagorako: 943 756 047 (Antonio).



Nerea Oteiza eibartarrak irabazi du Danborradarako kartel lehiaketa

Nerea Oteiza Zubiaurre eibartarrak irabazi du Trinitate jaietako danborradarako kartel lehiaketa. Irabazleak 300 euro jaso ditu.



LANA.....

Eskara

- Emakumea garbiketarak egiteko edo nagusiak zein umeak zaintzeko prest. ☎ **653 075 865**
- Emakumea lan bila. Autoa daukat, eta baserri lanetan esperientzia. ☎ **632 608 870**
- Emakumea adinekoak zaintzeko prest. Erreferentzia onak. ☎ **683 378 981**
- Emakumea sukaldari, harrera edo zaintzaile lanetarako prest. ☎ **608 474 923**
- Emakumea garbiketa lanetarako edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **662 267 141**
- Emakumea etxeko lanak egiteko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **616 457 254**
- Emakumea etxeko lanak egiteko prest. ☎ **672 834 085**
- Gizonezkoa adinekoak zaintzeko prest. ☎ **631 361 762**
- Ingeles eta aleman klaseak ematen dira ekainean eta uztailan. Talde txikiak. ☎ **685 784 989**
- Ingeles partikularrak, adin eta maila guztiak. Azterketa ofizialeterako prestakuntza, bussines English... talde txikiak. ☎ **680 858 550 / 943 741 594**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Gaez ere bai. ☎ **685 724 861 / 943 748 899**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Gaez ere bai. ☎ **671 975 753 / 666 089 485**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **632 054 894**

- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko prest. Asteazken zehar goizez, eta asteburuetan egun osoz. ☎ **699 232 823**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **690 925 929**
- Emakumea lanerako prest. Orduka ere bai. ☎ **627 768 684**
- Emakumea nagusiak edo umeak zaintzeko prest. Ospitalean ere bai. ☎ **625 895 460**
- Gizonezkoa sukaldari laguntzaile, zerbitzari edo banatzaile aritzeko edo nagusiak zaintzeko prest. Esperientziaduna. ☎ **690 861 846**

Eskaintza

- Asteburuetarako zerbitzaria behar da. Utzi CV Gautxo tabernan.

ETXEBIZITZAK.....

- Buhardilla alokagai. 2 logela, sukalde, egongela, komun konpletua, igogailua. ☎ **672 834 085**
- Aukera, Basarten! Etxea salgai. 231.000 euro. Hiru logela, bi komun, garaje itxia eta trastelekua. ☎ **618 151 420**
- Valle Ramalesen (Kantabria) txaleta alokatzen dugu urte osorako. Lau logela, egongela, bi komun. Heziz inguratuta. ☎ **653 733 457**
- Conilen (Cadiz) etxea alokatzen dut. Hondartza ondoan. Bi logela, egongela eta terraza itsasora begira. ☎ **653 733 457**
- Pisia alokatuko nuke. ☎ **686 052 084**

GARAJEAK.....


- Garajea salgai Debako hondartzan. ☎ **648 203 775**
- Garaje itxia alokatzen dut Ikastola ondoan. ☎ **943 531 648 / 669 916 148**

KINTOAK.....


- 1958an jaiotako bazkaria maiatzaren 18an. ☎ **943 740 021 (Jesus Mari) / 691 075 965 (Alfredo)**
- 1973koen kinto bazkaria ekainaren 1ean. 13:00etan batuko dira Kalegoen plazan. Autobusa, Txankakoan, 14:00etan.
- 1953an jaiotako bazkaria, Sigma jatetxean, ekainaren 8an. Interesatuak 60 euro ordaindu behar dituzte Caja Ruraleko kontu honetan maiatzaren 28rako: 3008 0182 86 2662374814.
- 1971n jaiotako bazkaria maiatzaren 18an Txarridunan. 12:30ean batuko dira Maala tabernan, salda eta txorizoa dastatzeko. Ondoren argazkia aterako dute. Bazkalostean, Gabazen festa egingo dute, 21:30era arte.

BESTELAKOAK.....

- Raclet-Corail karro denda salgai. 2 logela, 140x190. Estalpe itxia jantzigelarekin eta sukaldetarako tartea. Ia erabili gabe. Lehen, 1.500 euro; orain, 700 euro. ☎ **686 344 252 (Santi)**
- Autokarabana salgai. Fiat Hymer 594. 58.000km. Kaputxina 6 plazakoa. Oso ondo zaindua. 27.500 euro. ☎ **692 979 215 / 653 702 750**




P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ **943 743 140 - rosapf@telefonica.net**



Kaixo. Nire atala aurkezten dizuet BARRENEN. Jabego elkargoen inguruko zuen galderak izango dira hemen asteroko protagonista. Daukazuen galdera guztiak e-mailez edo telefonoz egitera gonbidatu nahi zaituztet; gustura erantzungo ditut atal honetan. Astero gutako edonori eragiten diguten gaiak ekarriko ditugu hona: eskubideak eta betebeharrak, zorrak edo ordainketetan atzerapenak, arazoak, aurrekontuak, obrak... Nahi nuke problematika honek eskatzen duen zorrotasun profesionala alde batera laga gabe zuen kezkek ahalik eta modu ulergarrienean eta hizkuntza ulerterrezenean azaltzea. Etxaldean administraritzan lanbide honetan komenigarria da ondo bereiztea lanbidean jardutea eta profesionala izatea. Horretarako, ezinbestekoa da Etxaldean Administraritzan prestakuntza berezia izatea, Kolegiatua izatea eta lanbide honek eskatzen duen eskarmentu profesionala izatea, gai hauetan uztartzen diren alderdi guztiei (alderdi tekniko, juridiko, fiskal eta administratiboak) behar bezala erantzuteko. NORFO aholkularitzan, hamabost urteko eskarmentuaren abalarekin, Etxaldean Administrazioari buruzko kalitatezko zerbitzu bat abiatzen dugula jakinarazteko baliatu nahi ditut lerro hauek. Eskerrik asko zerbitzu publiko honek izandako harreragatik. Espero dut zuei hutsik ez egitea.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henaresko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749



Creando Valor de Calidad en Administraciones de España
Iniciativa Puntos Administrativos
Luzbelo Rodríguez



• Zorionak, **Sabin**, maiatzaren 21ean 4 urte beteko dituzulako. Familiako denon partez, patxo bat, bereziki anaia Teoren partez.



• Zorionak, **Maria!** Atzo 5 urte! Patxo bat etxekoen, eta bereziki, Nora, Sara, Ane eta Naiaren partez.



• Zorionak, **Alain**, gaur 5 urte betetzen dituzulako. Muxu bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Elsa**, gaur 7 urte betetzen dituzulako. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Asier**, gaur 4 urte betetzen dituzulako. Aitatxo, amatxo eta Unairen partez.



• Zorionak, **Nagore**, domekan jaunartzea egin zenuelako. Muxu handi bat, etxekoen partez.



• Zorionak, **Aritz**, mendi buelta ederra egin zenuelako. Ondo pasatu genuen, ezta? Mendizaleen partez.



• Zorionak **Xabat**, 2 urte egingo dituzulako. Familiako denon partez, patxo handi bat.



• Zorionak, **Ane**, astelehenean 6 urte beteko dituzulako. Muxu asko, familiakoen partez.



• Zorionak, **Leire**, asteartean 6 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat, etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Ane**, bihar 4 urte beteko dituzulako. Muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **panpote**, zure lehenengo urtebetetzean. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Unax!** Zein ondo pasatu genuen zure urtebetetze egunean. Gora gure pilotaria. Muxu handi bat.



• Zorionak, **Naroa**, dagoeneko 7 urte beteko dituzu. Muxu asko, familiako guztion partez.



• Zorionak, **Garazi**, asteguztuan 4 urte bete zenituelako. Etxeko denon partez.



• Zorionak, **Adur**, bihar 4 urte egingo dituzulako. Muxu potolo bat, familiako guztien partez.



• Zorionak, **Iria**, maiatzaren 19an 9 urte egingo dituzulako. Muxu handi bat gurasoen eta ahizparen



partez.
• Zorionak, **Sergio**, etxeko guztion partez. Ondo pasa igandean!



• Zorionak, **Ibai**, 20an 4 urte beteko dituzulako. Zuri ere bai, Alicia. Familiakoen, eta bereziki Noraren partez.



• Zorionak, **Alain!** Gaur 7 urte betetzen dituzulako. Familiakoen eta bereziki Ainararen partez.



• Zorionak **Yuriri** bere urtebetetzean. Familiako guztien partez, eta bereziki arreba Idoiaren partez.



• Pausoz pauso, **Imanol eta Mirari**, hemen da mende laurdena. Segi aurrera gutxienez beste horrenbeste urtez, maitasunez beteta. Ondo pasa, eta zorionak familiakoen partez.



• Zorionak, **tio Ander!** Ondo pasa zure egunean eta muxu handi bat, familiakoen partez.



• Zorionak, **Danel eta Leire**, 8 eta 4 urte egingo dituzulako. Muxu bana, familiakoen partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 4€. Argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Erretratu bakarreko agurra 3 €. Argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

17 barixakua

Erakusketa

18:30 Ilustrazioak

Iban Barrenetxea elgoibartarraren lanak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean, hilaren 31ra arte.

Informazio mahaia

18:30 Zero Zabor

Hondakinen kudeaketari buruzko informazioa emango dute San Frantzisko iturrian.

Musika

18:30 Kale Kantariak

Elgoibarko Kale Kantariak entsegua egingo dute Kultur Etxean.

Musika

20:30 Kontzertua

'Sosegua' lana aurkeztuko du Garikoitz Mendizabal txistulariak. Musika Eskolak antolatuta, Herriko Antzokian.

18 zapatua

Kirola

9:30 Igeriketa eguna

Olaizaga kiroldegian.

Musika

12:15 Txistularien alardea

Kalejira egingo dute, eta 13:00etan kontzertua eskainiko dute Kalegoen plazan.

Politika

12:00 'Plazak bete'

Herrirak deituta, Kalebarren plaza beteko dute.

12:30 Argazkia

Taldeko argazkia aterako dute.

15:00 Bertso bazkaria

Lekuederren. Txartelak Iturri eta Jai Alai tabernetan eros daitezke.

Ondoren, musika

Lekuederren.

19 domeka

Kirola

9:00 Ehiza txakurren Trinitateetako txapelketa

La Union elkarteak antolatuta, Larraskandan.

Ikastaroa

11:00 Birziklapen eskulanak

Elgoibarko Izarrak antolatuta, HH4tik LH2ra arteko umeen gurasoentzako.

21 martitzena

Hitzaldia

19:00 Autokontsumo eta

kooperatiba elektrikoak

Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

Bilera

19:00 Greba Batzordea

Greba Batzorde zabala sortzeko bilera, San Frantzisko iturrian. Eurria bada, Kultur Etxeko sotoan.

23 eguna

Kirola

17:00 Ipuin kontalaria

Miriam Mendozaren saioa, Udal Liburutegian.

ZWEA

'La cocinera del presidente'

18, zapatua: 19:00/22:15

19, domeka: 19:00

20, astelehena: 21:30



OKINDEGIA _____ 19 domeka: **EIZAGIRRE**

BOTIKA ORDUTEGIAK _____

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze) Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze) Tel: 943 751 384

GUARDIAK _____

Egunez

9:00 - 22:00

17 Barrenetxea
18 Zabaleta
Goizez: Garitao.

19 Zabaleta
20 Barrenetxea
21 Ibañez
22 Garitaonandia
23 Etxeberria
24 Fernandez

Gauetz

22:00 - 9:00

Barrenetxea
Garitaonandia

Garitaonandia
Barrenetxea
Yudego
Garitaonandia
Etxeberria
Barrenetxea



Maiatzak 24 ostirala, LUDO EGUNA!!

Haurrentzat tailer ezberdinak plazan musikaz girotuta 16:30etik 18:30era.

Anima zaitetz!!!

Izarraitzen konkistarako izenematea Ekainaren 9ra arte egongo da zabalik. Informazio gehiagorako: 943 743 228 edo tuentian.



elgoibar ikastola

konfiantzan IKASTOLA
 HH 0-1ean
 irailean eta urrian hasteko
 matrikula zabalik
 maiatzaren 20tik ekainaren 1era

**Ikastola ezagutzeko
 aurkezpen bilera
 maiatzaren 20an
 19:00etan**

IMH Ingeniaritza **DUALA** imh
 UNIBERTSITATE ESKOLA

zure herrian, zure aukera

DBH Ondoren?
ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA
 eta ondoren lanera edo goi maila ikasten jarraitu...

BATXILERGOA amaitzean?
GOI-MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA (2 urte)
 eta lanera edo ikasten jarraitu...

... goi-mailako Heziketa Zikloa amaitu ondoren egiteko pentsatutako INGENIARITZA duzu IMHn: INGENIARITZA DUALA (alternantzia ikasi eta lan)

Erdi-maila
 - Mekanizazioa
 - Mantenu
 - Elektromekanikoa

Goi-maila (ALTERNANTZIAN ERE)
 - Fabrikazio mekanikoko Diseinua
 - Fabrikazio mekanikoko Produkzioaren Programazioa
 - Mekatronika industrialia

INGENIARITZA GRADUA:
 Prozesu eta Produktu Berrikuntzan Ingeniaritza

Informazio saioa: maiatzaren **25**ean, **11:00**etan
 etortzeko deitu **943744132**ra edo apunta zaituz **www.imh.es** orrian

BIRZIKLAGARRIA NAIZ.

Pentsaera, jarrerak, ohiturak... aldatzeko gai naiz. **Gipuzkoarrok 2016rako %60 birziklatzea lortu behar dugu.** Eta nik aldaketa horretan parte hartu nahi dut.